

KARMEL

XI. GN. URTEA, 1961

GARAGARRILLA-DAGONILLA

(LARREA-ZORNOTZA)

EDERRA TA ONA

Eder ta onak —Jainkoa eder ta on dogu— berez dagisku kili-kili biguna geure izatearen barruan.

Eta Jainkoak eurrez erein eban eder ta on-azia mundu zabaleko sorkarietan.

Jainkoak sorturikoetan, barriz, eder ta onena Andra Maria dala esan bear. Garbi ta eder da sortzetik, doe guztiz apaindua, Aren Seme Jesus'en eta gure Ama dalako.

Eta Andra Maria, Karmel'go Ama ta Erregiña dogu. Karmeldarrok, len eta orain, Ama orren doe ta anditasunak zabaldu ta goratzen ibilliak gara: Surrexerunt filii eius, et Beatissiman praedicaverunt, Aren semeak jagi ziran, eta txit eder zoriontsu dala adierazo eben.

Amari txaloak jo, goratu ta onetsiz, or arein bein-beiñeko zeregiña, Loraz ta lurrunkaiz Amaren altara-inguruak usaindu; biotzak, zuzi antzo, betisutan, bizia emoteraiño, Aren izena ta eraspena mundu guztiari ager-azo, gartsu ta biotz andiko.

Karmeldarren begietan, bada, beti agiri izan da eder: santutasunez eder, eskerrez eder, azken bagako errukiz ta iderik bako maite-garrez eder.

Taiu onetan, eder ta on, Karmel Mendiko odelitxoan agertu zaretik gaurko egunetaraiño, Beti eder artean, eder bertso-kantetan, eder eleiz jagi apaiñetan, eder musika-eresitan.

Eder ta on agertu yaku, batez be, gizasemeen atsekabe ta oiñazetan, Ementxe bait-dauko bere aulkia, bere errukizko aulkia, negar-malkoak txukatuz, neke-lorruk gozatuz, biotz-arantzak moztuz.

Eder ta on yaku eriotz-aldian, noiz ilgo dagonaren arima barren argi-zintaz ta gozotasun uiolez aseturik, Berarenak dozuz berba ezti pozkorrok: «Nire jantziz ilten danik, ez da galduko».

0,